


# Euskarak ere, independentzia



**ANE ABLANEDO LARRION**  
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

**H**aserre dabil euskaldungoa azken egun hauetan, ez dakit zein epaitegik euskararen inguruan hartutako erabaki batek euskal hiztunen eskubideak urratzen dituela, bidegabekeria dela, eta txor-txor-txor, betiko matraka. Niri, zer esango dizuet, gero eta astunagoa egiten zait ohiko diskurtso biktimista hori, iruditzen zaidalako albiste ere ez litzatekeela izan behar guretzat euskaldunon kontrako espainolen –edo frantsesen– enegarren iraina. Are gutiago, harridura edo asaldurarako arrazoi.

Mendeak dira jadanik frantsesak eta espainolak etxean sartu zitzaizkigula bortxaz, eta gure gainera agente makila eskuan, azpiratuta dutela Euskal Herria. Bi estatu menderatzaile horien atzaparretan erori izana da herri bezala pairatzen dugun egoera latz ororen iturburua, beraientzat nahi dutelako gure herria, eta erroitik erauzi behar dutelako horretarako euskal nortasunaren usaina duen guzia, gu erabat kolonizatzerainoko asimilazio prozesu gupidagabea martxan ezarriz.

Euskararen arazoa, Euskal Herriaren suntsipenerako antolatua den estrategia horren testuinguruan kokatu behar dugu. Euskal Herriari gertatzen

zaionaren sintoma gisa baizik ezin ditugulako aztertu gure euskalduntasunaren sinbolo direnei gertatzen zaien guzia. Euskara, herriaren hats eta ari-ma den neurrian, nazionalismo inperialistaren erasoan lehen jomuga da, gure hizkuntza nazionala izanik, beste nazio bat garela garbien erakusten duen ezaugarria delako.

Kontrakoa esaten badigute ere –eta hobeki sinets diezaiegun, baita azkenaldian euskaraz esan ere– euskara desagerrarazi egin nahi lukete, eta datuen arabera, eraginkortasun handiz ari dira xedea burutzen. Zergatik dira bestela hemen espainola eta frantsesa derrigorrez ikasi beharreko hizkuntza bakarrak? Nola esplikatzen duzue frantsesa izatea, eta ez euskara, frantziar okupaziopeko euskaldun guziek dakiten hizkuntza bakarra, edo espainola, espainiar okupaziopekoen kasuan? Oso hizkuntza erakargarriak direlako? Guk biziki hizkuntza polita dugu, Europako zaharrenetakoa, altxor tipi bat... Baina hautu pertsonala izaten segitzen du hargatik euskarak, borondatezko keinu, sentimenduen eremuko kontu hutsa.

Ez. Agintea espainol eta frantsesen esku dagoela, beren hizkuntzak inposatu ahal izateko adina botere dutela,

eta horretarako beharrezkoa den egitura politiko gorenaren jabe ere badirela –estatua–. Horiexek dira arrazoiak. Guk, ordea, meneko izaten segitzen dugu gurean, eta zapalkuntza horretatik ateratzeko beharko genukeen gure estatua aktibatu eta elikatu ordez, botere arrotzaren sukurtsalak baino ez diren instituzio autonomikoetan gabiltza agintariarena egitera jolasten, posible balitz bezala horietan, Euskal Herriarentzat benetan eraginkorra izango den politika egitea.

Hizkuntzen ustezko elkarbizitza gauzatzeko ezarri diguten jokaleku trankpati eta interesatuan, zer justizia klase aurkituko du euskarak? Antzua da egiten diguten astakeriengatik kexu, gurekiko errukiaren eskakizunean oinarritzea hizkuntzaren aldeko mugimenduaren funtsa. Hizkuntzaren etorkizuna bermatzeko gakoa ez datzalako hiztunen eskubideen urraketen salaketan eta hizkuntza-politika eraginkorraren eskakizun hutsean. Euskararen heriotza erabat saihestu dezakeen botika eraginkor bakarra Euskal Herriak independentzia berreskuratzea baldin bada, zertan ari gara beste bide ilun eta faltsuetan denbora eta energia xahutzen? Eta garrantzitsuagoa dena, zergatik? ●